MONDRAGON UNIBERTSITATEAk kolaboratuko du Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Lehen Aukera beken kudeaketan

2014/10/15

MONDRAGON UNIBERTSITATEAk kolaboratuko du Eusko Jaurlaritzarekin Lehen Aukera beken programan. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak bideratutako beka horien helburua da, praktika ordainduen bidez, enplegagarritasun aukerak handitzea gazte langabeen artean.

Lehen Aukera bekak zuzenduta daude langabean dauden eta aurretik bere titulazioarekin harremanik duen lan esperientziarik ez daukaten 16 eta 30 urte bitarteko gazteei; guzti hau, langabean dauden gazte hauen enpregagarritasuna hobetzeko sustatzeko.

Pertsona onuradunek, besteak-beste, hurrengo bi baldintza bete behar dituzte: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea eta identifikatuta egotea Gazte Bermearen Sistemaren datu-basean, eta aurrez egiaztatuta izatea beteta daudela sistema horretara sartzeko baldintzak. Programari buruzko informazio guztia Lanbideko webgunean dago.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAk Lanbideko erakunde kolaboratzaile bezala, eskainiko du bere laguntza eta aholkularitza Orientazio eta Enplegu Zerbitzuaren bidez, Lanbiden lan-eskatzaile moduan inskribatzeko. Gaienera, unibertsitateak kudeatu eta bideratuko ditu enpresa kontratatzileen balizko lan eskaintzak.

Lehen Aukera beken edozein argibiderako, ondorengo pertsonekin jar daiteke harremanetan:

- **Karmele Mancisidor:** kmancisidor@mondragon.edu
- **Jose Manuel Bergaretxe:** jmbergaretxe@mondragon.edu
- Tfnoa: 943 25 33 72 / 943 25 33 73